

MANDOBIDE, 6-3  
BILBAO 48007  
94 405 64 50

idazkaritza@sabinoarana.org  
www.sabinoarana.org

## **POLITIKA // MUNDUA // EKONOMIA SAILEKO**

ERREDAKZIO BURUA

### **ALBISTEGI BURUA**

**Mugazgaidiko Lankidetzan aditu zenbait Hondarribian bilduko dira europar integraziorako prozesua aztertzeko: oraingo egoera eta etorkizunarekiko ikuspegia**

**Andoni Ortuzar EAJ-PNVren EBBko lehendakariak irekiko ditu jardunaldiak**

### **HEDABIDEENTZAKO DEIALDIA** **JARDUNALDIEN IREKIERA**

Eguna: **azaroaren 21a, ostirala**  
Ordua: **9:00**  
Lekua: **Hondarribiko Itsas Etxea**

Parte-hartzaileak **Andoni Ortuzar**, EAJ-PNVren EBBko lehendakaria  
**Aitor Kerejeta**, Hondarribiko alkatea  
**Mikel Antón**, Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietako Zuzendaria  
**Juan M<sup>a</sup> Atutxa**, Sabino Arana Fundazioko lehendakaria

Sabino Arana Fundazioak eta Europar Demokratikoen Institutuak (IED) —azken erakunde hori Europako Alderdi Demokratari (EDP) atxikitako fundazio politikoa— “Mugazgaidiko lankidetzak Europa integraziorako prozesuan duen esanahia: gaur egungo egoera eta etorkizunerako ikuspegiak” izenburuko mintegia antolatu dute, Jardunaldia Hondarribiko Itsas Etxean egingo da datorren azaroaren 21ean, ostiralean. Elkarraldia 9:00 eta 15:30 bitartean garautuko da.

Jardunaldi horien helburua da, Europar Batasun barruko mugazgaidiko lankidetzarako politika (lan-esparrua, eskura dauden tresna juridikoak, helburuak, etab.) aztertzea eta

hartaz hitz egitea, bai halaber, euskal mugako errealitatea eta Europako beste eskualde batzuetako mugazgandiko lankidetzari buruz.

Mintegian arloko aditu hautu zenbaitetik parte hartuko dute, toki nahiz eskualdeetako elkarte eta garapen-agentzia zenbaitetako ordezkaria batzuek, herri-aginteetakoek, etab., besteak beste.

### Egitaraua eta parte-hartzaileak

Jardunaldien irekiera-ekitaldia honako hauen ardura izango da: **Andoni Ortuzar** EAJ-PNVren EBBko lehendakari eta EDAko (EDP) presidenteordea; **Aitor Kerejeta** Hondarribiko alkatea; **Mikel Anton** Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietako Zuzendaria eta **Juan M<sup>a</sup> Atutxa** Sabino Arana Fundazioko lehendakaria.

Ondoren mahainguru bat abiaraziko da *“Mugazgandiko Lankidetzaren (Mggl) Politika Europar Batasunean”* izenburupean, eta bertan hizlari izango ditugu, **Martín Guillermo** ARFEko (Europako Mugalde Eskualdeen Elkarte) idazkari nagusia; **Igor Filibi** EHUko Nazioarteko Harremanetako irakaslea eta Europar Integrazioako Masterra, **Francisco Letamendia** EHUko Politika eta Administrazio Zientziako irakasle titularra. Mahaiaren moderatzaile **Izaskun Bilbao** Europako Parlamentu ALDE taldeko (Europarako Liberal eta Demokraten Aliantza) presidenteordeak jardungo du.

Ondoren, bigarren mahainguru bat egingo delarik, *“Lankidetzaren euskal mugan”* izenburukoa, hor jardungo dute **Marc Moulin** Akitania — Euskadi Lurralde Lankidetzarako Europar Elkarteko zuzendariak, **Pantxoia Etchegoin** Euskal Kultur Erakundeko zuzendariak eta **Olga Irastorza** Bihartean Mugazgandiko Ganberako koordinatzaileak. Eta mahaia moderatuko du, Lehendakariaren Kanpo Harremanetarako ordezkari ohi eta Eusko Ikaskuntzako presidente ohi **José M<sup>a</sup> Muñoak**.

Azkenik, hirugarren eta azken mahainguruan *“Europako beste eskualde batzuetako Mugazgandiko Lankidetzaren”* gaiak hitz egingo da. Azken horretan hizlari jardungo dute, **Jens Gabbe** Europako Mugalde Eskualdeen Elkartean (ARFE) Kontseilu Aholkulariko mahaiburuak eta **Ignacio Sánchez Amor** Kongresuko diputatu eta OSCEren (Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundea) Batzar Parlamentarioaren muga-arazoetarako ordezkari bereziak. Moderatzailea izango da, **Xabier Ezeizabarrena**, abokatua eta Ingurumen Zuzenbideko Masterreko Administrazio Zuzenbideko eta abokatutzan sartzeko Master ofizialeko irakaslea (EHU).

Hizlariek eta moderatzaileek gain, mintegian baita egongo dira ere toki nahiz eskualdeetako elkarte eta garapen-agentzia zenbaitetako ordezkari batzuk, herri-aginteetako zenbait, etab.; besteak beste: **Itziar Alkorta**, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea; **Daniel Arbulu**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kanpo Harremanetako zerbitzuburua; **Flaminia Baffigo**, IEDko koordinatzailea; **Marian Elorza**, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia; **Jon Etxabe**, abokatua, Merkataritza eta Batasuneko Zuzenbidean aditua; **Izaskun Goñi**, Bertiz Turismo Partzuergoa erakunde mistoko gerentea; **José Manuel Ladrón de Guevara**, Donostiako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentea; **Imanol Leza**, Eusko Treneko zuzendaria; **Luke Uribe-Etxebarria**, eusko legebiltzarkidea; **Jean Tellechea**, Urruñako zinegotzia; **Peio Olhagaray**, Bihartean Ganberakoa; **Asier Vallejo**, Eusko Jaurlaritzaren Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaria, eta **Eneritz Zabaleta**, Zuzenbidean lizentziatua eta irakasle Baionako Zuzenbide Fakultatean.

